



BARREN  
TOKIKOM

# Klaratarren agurra



Euskara ez daukagu saltzeko!

643 499 169

gureanbaie!elgoibar@gmail.com



## Atera selfiea!

eta irabazi erosketa txartelak  
Apirilaren 13tik maiatzaren 17ra



# San Bartolome,<sup>1</sup>

E L G O I B A R

2 eta 3 logelako  
**4 ETXEBIZITZA**  
trastelekuarekin  
eta lokal  
komertziala

**ERAIKUNTZA  
BERRIA**

**AZKEN ETXEBIZITZA**



Sustatzailea

**ISGA** Inmuebles s.a.

Kudeatzailea

**gasdas**  
gestión de  
promociones  
de viviendas

Finanziatzailea

**LABORAL**  
kutxa

Saltzailea

**A** Arbeloa  
inmobiliaria

Informazioa eta Salmentak

**T. 688 72 41 22**





Barrenek 25 urte

# 25 urte Lazkao Txiki isildu zela



**BARRENeK bete dituen beste urte bete ziren martitzenean Joxe Migel Iztueta 'Lazkao Txiki' hil zenetik, eta gaur, hil zenean egin genuen bezala, haren figurari tarte bat eskaini nahi izan diegu.**

**M**artitzenean bete ziren 25 urte Joxe Migel Iztueta Lazkao Txiki hil zela.

1993ko apirilaren 3a zen, eta 66 urte zituen. Donostiako poliklinikan hil zen eta haren heriotzak samin handia sortu zuen ondorengo egunetan. BARREnek ere orrialde oso bat eskaini zion albisteari, *Lazkao Txikiri* agur izenburupean. German Meabebasterretxearen hitzei eta Javier Arrizabala *Ziarden* bertsoei laguntzen, Lazkao Txiki bera Elgoibarren azkenekoz izan zeneko argazkia argitaratu genuen, 1992ko abuztuaren 29ko irudia. Lazkao Txikiz gain, German Meabebasterretxea bera, Ziarda, Kepa Urain eta Jon Azpillaga bertsolari handia ageri dira sanbartolomeetako argazki hartan, bizkarretik helduta.

Ezagunak zaizkigu Lazkao Txikiren ateraldi eta pasadizoak eta gogoan dauzkagu haren bertsoaldi ba-

tzuk ere. Lazkao Txikik bazuen irudi bat barregura sortzen zuena, bere keinuetatik hasita, eta horrek, berarengandik espero zena eman beharrak, higuindu ere egin zuen azkeneko, *Argiari* emandako elkarrizketa batean berak aitortu legez: "Nigandik espero dutena eman behar eta erreta, ernegaturik, ibiltzen nauk sarritan. (...) Gai txistosoen bano nahiago, gusturago, ibiliko ninduan gai ilunagoetan. Behin hartu haute horrela eta horren arabera jartzen dizkiate gaiak. Nola eman haizen, hala hartzen hau jendeak. Norberak eramaten dizkik horiek".

Umore fina zuen eta ezten zorrotza, baina lñaki Murua bertsolariak (Gabiria, Gipuzkoa, 1956) BERRIA egunkariko Amagoia Gurru-

txaga kazetariari esan bezala, hori baino gehiago zen: "Ikargarri estimatzen zuen sentimentuetan eta afektibitatean sakontzeko aukera ematen zuten gaiak izatea. Oso ona zen, gainera, gai horietan bere iritzia ematen. Orduan gelditzen zen gustura, eta orduan egiten zuen ekarpena umorean ere bere onena emanez". 1993ko urtarrilaren 28an bihotzeko ebakuntza egiteko ingresatu zutenean ere honelaxe esan ei zion anestesistari. "Zuk lo jarriko nauzu, baina nork jarriko du despertadorea?".

Sentiberatasun eta samurtasun handiko bertsolaria zen, eta horregatik ere bertsozale askok zuten estimuan. Elgoibarren azkenekoz kantatu zen Meabebasterretxea ere, eta harekin pasatu zuen eguna ikasbide ederra izan zitzaiola aitortu zuen agerkari honetan bertan, hil ondorentxoan. "Gogoan daukat oraindik bazkalondoko saioa egin ondoren nola ondora etorrita esan zidan 'bale haiz bertsotako gazte, bale haiz'. Ez zaizkit hitz haiek sekula ahaztuko". Lazkaon egin zioten azken agurrari buruz ere honela idatzi zuen Meabebasterretxeak: "Zuk esan bezala, igandean topo egin genuen Lazkaon. Zuk ez ninduzun ikusi, baina nik zu bai eta kaso egin nizun, agur egin nizun, eta ez nire izenean bakarrik, Elgoibarko herri guztiaren izenean baizik".

Lazkao Txikiren omenez, 1993ko zenbaki hartarako Ziardak idatzitako bertsoa ere ekarri dugu hona. Honela dio:

*Euskal Herriko bertso zuhaitza  
triste ikusten diat nik  
Lazkao Txiki maite gendula  
ez baitago zer esanik  
beti kantari zebillen txori  
fin ta garbia izanik  
ez gendun uste gure artetik  
hain azkar joango zanik.*

*Gizon argi eta leiala gendun  
gure Joxe Migel zena  
euskal artista paregabea  
ta abertzale gizona  
hainbat gozamen emanda joan den  
langile bizkor zuzena  
Euskal Herriak ez du ahaztuko  
Lazkao Txiki(re)n izena.*



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► LARUNBATEAN AZPEITIRA!

Apirilaren 12an Iñaki Errazkin Ingu-  
rumen diputatu ohia eta Ainhoa Intxaur-  
randieta Gipuzkoako Hondakinen  
Kontsortzioko lehendakari ohia Espai-  
niako Kontu Auzitegian epaituko di-  
tuzte, Zubietako errauste plantaren  
kontratua eteteagatik. Horrek eragin-  
dako kalte ekonomikoak Errazkinek eta  
Intxaurrandietak beren gain hartzea  
nahi du Gipuzkoako Hondakinen Kon-  
tsortzioak (GHK) (gaur egun EAjk eta  
PSE-EEK dute gehiengoa), eta horren-  
bestez, 40 milioi euro baino gehia-  
goko zigorra eskatzen dute bi  
auzipetuentzat. Hori salatzeke Elkar  
Ekin Azpeitian elkarteak deituta mani-  
festazioa egingo da apirilaren 7an (la-  
tunbata). Manifestazioa 18:30ean  
hasiko da Azpeitiko plazatik, *Iñaki eta  
Ainhoarekin elkartasuna, alternatibak  
badaude* lelopean.

Azpeitira gerturatzeko deia egin di-  
gute gipuzkoarroi, Iñaki eta Ainhoari  
elkartasuna adierazteko. Erraustegiaren  
proiektua gelditu eta alternatiba eraiki-  
tzeko asmoa zuen programarekin ira-  
bazi zituzten hauteskundeak, eta

esandakoa bete baino ez zuten egin.

Oinarrian elite ekonomikoari aurre  
egin izana da epaitzera doazena,  
eredu kapitalistak alternatibak izan di-  
tzakeela erakustea da zigortu nahi du-  
tena. Erraustegiaren atzean interes  
ekonomiko handiak egon dira hasiera-  
tik; enpresari, politikari, banku eta ko-  
munikabide boteretsuak hain zuen ere.

Ez naiz nekatuko esaten erraustegia  
ez den bestelako alternatibak badau-  
dela. Gipuzkoako hainbat herritan lortu  
diren birziklapen tasek (atez ateko ho-  
dakin sistemarekin esaterako) erakusten  
dute posible dela hondakinak beste  
modu batera kudeatzea. Bidea kudea-  
keta eredu hauetan sakontzean dago-  
ela uste dut, erraustegia bezalako  
proiektu kaltegarriak baztertzuz.

.A.I.Z.

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahituez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatzuak...
6. Ez dugu gaztelezar datoren eskutitzik argitaratuko.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-  
riak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain  
hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-  
koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZE-  
TARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati  
Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLI-  
ZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO**  
**ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK**  
Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon  
Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena,  
Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpi-  
llaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula  
Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki  
Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-  
azaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA**  
4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua


Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Edukiontzi ondoko lauza:** “San Roke kalean, kiroldegi ondoan, edukiontziak daude eta lauza bat apurtuta edo bere lekutik kenduta dago. Trabatzeko arriskua dago, eta euria egiten duenetan oharkabean hanka potzuan sartzekoa ere bai. Lehen ipini zituzten berriak ere, eta ez dakit ba horietako bat den berriz apurtu dena”. Udaletik konponduko dutela adierazi dute.



**Tren geltokian eserlekurik ez:** “Elgoibarko tren geltoki nagusian, barruko gelan, eserlekuak falta dira. Euria eta hotza egiten duenean jende asko sartzen da tren geltokiko gela horretara eta ez dago esertzeko lekurik. Beste geltokietan ikusi izan ditut, eta jakin nahiko nuke Elgoibarkoan zergatik falta diren”. Euskotrenen esan digute trenez beraiek arduratzen direla baina gainontzeko instalazioez ETS enpresa arduratzen dela. Horregatik, beraiek ETSri pasatu behar diotela idatziz erreklamazio hori. Erabiltzaileak bi bide dituzte erreklamazioak jartzeko. Batetik, webgunean ([www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)), Bezero-enganako arreta atalean; eta bestetik, harreraguneak dituzten geltokietan: Bilbon Donostian, Durangon edo Eibarren.



**Artetxeko trenbide azpiko pasabidea:** “Artetxe eta Iñiguez de Karkizao kalearen artean trenbide azpiko pasabidea egin zuten, baina handik barrera ibiltzen garen hainbat bizilagunentzat ez da batere egokia ez zutelako arrazirik egin eta umeentzako aulkitxoekin, gurpildun aulkiekin edo adinekoekin ezin garelako handik pasatu. Egin zutenetik denbora bat pasatu den arren, jakin nahiko nuke ea baduten moldaketarik egiteko asmorik”. Udaleko Hirigintza Saisetik hau da eman diguten erantzuna: “Oraingoz ez dago asmorik horrelakorik egiteko. Kota eta malda aldetik zaila dago gainera irisgarritasuna betetzeko. Hala ere, 300 metrora igogailua dago, eta 100 metrora, Melitongo pasabidea”.



**Iñiguez de Karkizaon jarlekuak:** “Gabriel Krutzelaegitik Iñiguez de Karkizaora bitartean ez dago umeek jolasteko tokirik. Askotan egoten gara gurasoak Iñiguez de Karkizaoko azken etxeen azpian umeak jolasean ari diren bitartean zaintzen. Beraz, jakin nahi dugu ea posible den han eserleku batzuk jartzea”. Hirigintza Saisetik esan dute baietz, posible dela.

## 'Atera selfiea' kanpaina hasiko dute Elgoibarren, denda eta tabernetan euskararen erabilera sustatzeko

Denda eta tabernetan euskararen erabilera sustatu nahi du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Elkartek, eta horretarako, *Atera selfiea* kanpaina hasiko du apirilaren 13an, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. Salerosketak euskaraz egiten dituzten erosle eta merkatariek (dendari zein ostalariek) elkarrekin selfie bat atera behar dute lehiaketarako eta [gureanbaielgoibar@gmail.com](mailto:gureanbaielgoibar@gmail.com) helbidera edo 643 499 169 whatsapp zenbakira bidali maiatzaren 17a aurretik (argazkiarekin batera bezeroaren telefono-zenbakia eta denda edo tabernaren izena bidali behar dira). 18 urtez gorako edonork parte hartu dezake lehiaketa eta bezero bakoitzak nahi adina argazki auzetu ahal izango ditu lehiaketarako. Parte hartzen duten guztien artean, 20 euroko hamabost erosketa-txartel zozkatuko dituzte gero, zozketa egunetik hasi eta bi hilabeteko epean erabiltzeko. Erosketa-txartelak erosketa bakarrean trukatzeko izango dira, eta antolatzaileek ez dute dirurik itzuliko. Erosketa-txartelak trukatzeko diren establezimenduek 20 euroko faktura egin beharko diote Elgoibarko Izarrari (BEZ barne). Zozketa, berriz, maiatzaren 18an egingo dute, Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan.

## 'Hazilan' egitasmoa jarri du martxan Debegesak gazteen laneratzea errazteko



*Hazilan* egitasmoa abiatu du Debegesak, goi mailako heziketa-zikloa edo unibertsitate ikasketak bukatuta dituzten 20 eta 44 urte bitarteko gazte langabeen laneratzea errazteko. Partehartzaileek prestakuntza pertsonalizatua jasoko dute. Proiektuen kudeaketa arloko ezagutza eta trebezia landuko dituzte, eta bigarren fase batean, enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute. Interesatuak apirilaren 11 arteko epea dute izena emateko ([www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus)). Hilaren 10ean, hala ere, informazio-saio bat ere eskainiko du Debegesak Eibarko bere egoitzan, Azitain industrialdean, 12:00etan.

## Kintada eguna iragarri dute Elgoibarren urriaren 27rako

Herriko gazte talde batek kintada eguna antolatu du urriaren 27rako. Ospakizunak ez du garai batego kintoen ospakizunekin zerikusirik. Gehiago da Euskal Herriko zenbait herritan, tartean Laguardian, egiten duten jaiaren antzeko zerbait. Urte berean jaiotakoak mahai baten bueltan batu nahi dituzte, eta deitzaileek kalkulatu dute herriko jatetxe eta elkarre gastronomikoak aintzat hartuta, 2.500 lagun ingururentzako lekua dagoela Elgoibarren. Kintada bakoitzak hartu beharko du bere urte berekoak batzeko ardura. Bazkalosterako jai-giroa ziurtatuta egongo dela esan dute ekimenaren sustatzaileek.

## 'Euskaraldia' egitasmoan izena eman du Mendarok ere

*Euskaraldia*, 11 egun euskaraz ekimenean izena eman du Mendaroko Udalak. Herritar euskaltzaleak aktibatuta hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburua, eta Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkartek urteetan zehar landu duten Euskaraldia 365 egun lan ildoaren baitan kokatzen da. Ekimenak bi mugarri izango ditu: Batetik, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, 11 egunetz, euskal hiztunen ohituretan eragin eta haien harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea bilatzen du *Euskaraldia 11 egun euskaraz* ekimenak. Bestetik, hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatua denez, 2019an, entitate guztiak euskararen erabilera babesteko eta sustatzeko neurriak hartuzera bultzatu nahi ditu. Elgoibarrek ere emana du izena ekimen honetan, eta eskualdeko beste herri hauek ere bai: Eibar, Murtiku, Soralue eta Ermua.

## Obrak hasiko ditu Mendaroko Udalak Plaza auzoan

Hainbat berritze lan egingo ditu Mendaroko Udalak Plaza auzoan. Auzoa bera asfaltatuko dute, eta Agarre Handi eta Agarre Txiki baserri arteko errepide zatia ere asfaltatuko dute. Era berean, Etarte baserrira iritsi baino lehen harri-lubeta bat ere eraikiko dute, mendi hegalaria eusteko.

## Herritarren Arreta Zerbitzua berri du Elgoibarko Udalak, eta orain, zerbitzu gehiago eskainiko dituzte bulegoan, ordutegi zabalagoan

Herritarren Arreta Zerbitzua berri du Udalak. Lehengo leku berean dago, baina orain, Santa Ana kaletik du sarbide nagusia. Orain, gainera, herritarrentzako zerbitzu berriak ere eskainiko dituzte Arreta Zerbitzuan, eta ordutegia ere zabalagoa izango du: astelehenetik barixakura, 7:30etik 15:30era.

Udaletxeko arreta zerbitzuan egiten ziren gestioak zein kontu-hartzaitza sailean egiten ziren tramitazioak gune bakarrean kudeatuko dituzte orain. Honako hauek egin ahal izango dira bertan: Erroldari lotutako kontuak (altak, bajak eta aldaketak); obra-baimenak eta bestelako lizentziak; gizarte zerbitzuen inguruko informazioa eman eta dokumentuak jaso; Kultura, Euskara, Gazteria eta Hirigintza sailtako diru-laguntzetarako eskaerak eta tramiteak; areto, espazio publiko, instalazio eta materialen eskaerak eta erreserbak; zinerako eta ikuskizun eszenikoetarako bonuak eskuratzea; ikasle, irakasle, gazte eta aterpekin txartelen tramitazioak; ondainagiriaren helbideratzeak; hondakinak biltzeko sistemen inguruko kontuak (txartelak eta poltsak eskuratzea); ikastaroetarako eta udal ludoetarako izenemateak, eta Udalarekin egin beharreko edozein izapideri buruzko informazioa eman. Era berean,



kutxazain automatiko bat ere jarri dute udal tramiteak arintzeko, eta Herritarrentzako Txokoa ere egokitu dute. Interneterako konexioa daukan ordenagailu bat jarri dute, elgoibartarrek kontsultak edo bestelako tramiteak euren kabuz egin ditzaten. Txoko horretan, umeentzako gune bat ere egokitu dute, gestioak egitera haurrekin doazenek lasaiago egin ditzaten egin beharrekoak.

### Lapurretak egin dituzte Elgoibarren

Lapurretak izan dira egunotan Elgoibarren. Martxoaren 26-27an, esaterako, Olosope industrialdean eta Basarten aparkatuta zeuden autokarabanan sartu ziren lapurrak. Udaltzainek bi adingabe, gizonetakoak biak, atxilotu zituzten Basarten aparkatutako autokarabana baten barruan lapurretan ari zirela eta Ertzaintzaren esku laga zituzten biak. Apirilaren 1eko goizaldean, berriz, Sallobente auzoko elkartean ere sartu ziren lapurrak, sarrerako atearen gaineko horma-zatian zuloa eginda. Elkarteko kaxan zuten dirua eta hainbat alkohol-dun edari ostu zituzten lapurrek eta kalte material dezenteak eragin. Apirilaren 2ko goizaldera, berriz, Urazandiko Herri-Gain elkartean sartu ziren lapurrak. Aurrez saiakera egina zuten, baina ez zuten lortu. Oraingoan, ordea, sarrerako atearen ondoko leiho batetik sartu dira, eta kalteak eragin dituzte barruan. Ertzaintzak ikerketa abiatu du, baina lerro hauek idazteko unean argitu gabe zegoen oraindik lapurrek zer eraman zuten.

### Elgoibarko Udalak 95.682,52 euroko diru-laguntza emango die herriko ikastetxeei

Elgoibarko Udalak 95.682,52 euroko diru-laguntza emango die herriko ikastetxeei: Elgoibar Ikastolak 28.922,52 euro jasoko ditu, Elgoibarko Herri Eskolak eta Institutuak 25.670 euro, Meka Lanbide Eskolak 6.700 euro, IMHK 33.565 euro eta Ceba Eibarrek 825 euro. Diru-laguntza horrez gain, gainera, Ongizate Sailak, Udaleko Berdintasun Sailak eta Sustapen Ekonomikorako Sailak diru partida bat izendatu dute eskoletan sail horien helburuekin bat datozen ekintzak abiatzeko.

### 'Gatazkaren ondorioak emakumeengan. Emakumeak bakearen eraikuntzan' hitzaldia

Bizikidetzaren eriteien zikloaren barruan, *Gatazkaren ondorioak emakumeengan. Emakumeak bakearen eraikuntzan* izenburuko mahai-ingurua izango da hilaren 10ean Elgoibarren. Bertha Gaztelumendi kazetaria eta Maria Gonzalez Gorosarri kazetari eta ikertzailea izango dira hizlariak eta saioa Musika Eskolako auditoriumean izango da, 19:00etan. Elgoibarko Udalak antolatutako hiru jardunalditan lehenengoa izango da.

## Zenbat diru behar da hilabetean ondo bizitzeko?



**Unax Ulibarri**  
(Elgoibar, 6 urte)

Asko, 27 euro. Arropak erosteko izaten da, baina nik gastatu egiten dut ostiraletan txutxeak erosten. Baina gaizki portatzen bagara, ez ditugu erosten. Guk dirua gastatuz gero, aitatxok eta amaxok erosten dizkigute arropak.

**Unai Mejuto**  
(Elgoibar, 6 urte)

Bost euro. Ez dut gehiago behar. Txutxeak erosteko erabiltzen ditut eta nahikoa izaten dut hilabeterako. Baina etxean ere badauzkat jateko. Amaxok erosten ditu horiek.



**Leire Vazquez**  
(Elgoibar, 6 urte)

100 euro. Ez dakit zertan gastatzen diren, baina. Agian sorpresaren baterako. Janaria ere erosten dute aitak eta amak, eta uste dut nahikoa dela, baina gehiago behar badugu 100 euro horietatik hartuko dugu ze hori izugarri aberatsa izatea da.

**Nora Cabanillas**  
(Elgoibar, 6 urte)

Asko, 1.000 euro edo gehiago behar dira. Diru hori argia eta uraren fakturretan gastatzen da, baina baita janaria erosten ere. Hori amak eta aitak ordaintzen dute, eta ez dakit diru horrekin nahikoa izaten den.



**Eider Gabilondo**  
(Elgoibar, 6 urte)

50 edo 60 euro. Diru horrekin arropa erosten da, eta baita xaboa eta janaria ere. Txutxeak ere erosten ditut, baina ez dakit dena erosteko nahikoa izango diren 60 euro. Gauza gehienak aitak eta amak erosten dituzte.



**Ariel Rodriguez**  
(Elgoibar, 6 urte)

2.000 euro. Arropa eta jostailuak erosteko erabiltzen da, baina baita sofa eta eguneroko janaria ordaintzeko ere. Ez dakit nahikoa diren 2.000 euro, baina sofa kenduz gero, iritsiko dela uste dut, sofa delako garestiena.





**Irati Loiola**  
(biloba)



**Maria Jesus Garate**  
(amama)

*Uda. Neguan hotza egiten du. Udan, ordea, lagunekin piszinara joaten naiteke.*

**Uda ala negua?**

*Uda. Neguan hotzarekin gero eta eskasago moldatzen naiz, eta uda ere ez da oso beroa izaten.*

*Lo. Bestela telebista pixka bat ikusi. Egunez jolastu ere egiten naiz.*

**Egunez egiten ez duzun zer egingo zenuke gauetz?**

*Lehen, juergan, baina orain ez zait gustatzen. Beraz, telebista ikusi. Egunez ez zait hainbeste gustatzen.*

*Nik oraingo musika dut gustuko. Adibidez. J. Balbin, martxosoa delako.*

**Zein musikari duzu gogoko?**

*Mikel Urdangarin asko gustatzen zait. Xabier Lete ere bai. Musika goxoa.*

*Bidaia bat Greziako irletara.*

**Zein opari jasotzea gustatuko litzaizuke?**

*Nire gizonari ez zaio kanpoan ibiltzea gustatzen... Beraz, bidaia bat Parisera.*

*Lagunekin jolasean ibiltzeak*

**Zerk jartzen zaitu pozik?**

*Etxeko giro ona bezalakorik ez dago pozik egoteko.*

*'Boom`-en. Gurasoekin eta ahizparekin taldean.*

**Telebistako zein saiotan hartuko zenuke parte?**

*'Pasapalabra`-n. Baina sekulako gaitasuna behar da horretarako.*

*Erosketak egitera joan eta ordaindu gabe dendetatik irten.*

**Zer egingo zenuke ikustezina izanez gero?**

*Mundua konpondu, gerrarik egon ez dadin. Izugarri sufritzen dut bazter guztietan gerran daudela ikusita.*

*Alemaniera. Nire ahizpa Maialenek ikasi zuenetik gustatzen zait, eta ingelesa ikasten ari naiz.*

**Zein hizkuntza ikasi nahi zenuke?**

*Ingelesa ikasiz gero, nahikoa eta sobera.*





Bihar Elgoibarko komentua utziko duten mojetako batzuk Santa Klararen irudiaren aurrean.

## Santa Klarari agur otoitza

**485 urte eman dituzte moja klaratarrek beren zaindariaren izena hartu duen auzoan, baina bihar, apirilaren 7an, Santa Klarako komentua utzi eta beste herri batzuetarako bidea hartuko dute. Aurrez, baina, elizkizun berezia egin zieten parrokian joan zen astean, Elgoibarren egon diren denbora luze honetan herriaren eta herritarren alde egin duten guztia eskertzeko.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

**H**orrenbeste urte gure artean egin duten Santa Klarako mojak hartu dituen komentuak merezi du aipamen bat. 485 urte pasatu dira komentura lehen komunitatea iritsi zenetik, eta ordutik asko aldatu dira gauzak, jakina. "Onerako", mojek eurek aitortu dutenaren arabera.

Komentuko gela batean egin dugu haiekin hitzordua. Komentua hustu beharraren hustu beharraz, gela asko trastez bete dituztela esan digute, eta "urduri eta penaz" daudela aitortu dute, horrenbeste gauza utzi behar izateagatik. "Gazteak ginenean utzi genituen gure etxeak, gure lagunak, familia... hona etortzeko, baina orduan gazteak ginen eta ilusioz beteta geunden. Urte batzutan gora iritsi eta berriz behera egiteko unea heldu zaigu", esan digute. Ezagunen baten arrimuan iritsi ziren gehienak Elgoibarrera, baina kezkatuta. Mojetako batek zera esan digu: "Harre-rako tornutik barrura zegoen mojak beste ahots bat zuela iruditu zitzaidan; purgatorioko anima ematen zuen".

Hainbeste urteren ostean, komentua zergatik utziko duten da elgoibartar askoren galdera eta Maria Jesus Azpiazu ama nagu-

siak argi eman digu arrazoa: "Gazterik ez dator gure atzetik eta gu, berriz, zahartzen ari gara. Zenbat eta zaharrago, gastuak ere gehitu egiten dira, kanpoko jende gehiago hartu behar izaten delako hemen gaudenoi laguntzeko, eta era berean, gure diru-sarrerak nabarmen apaldu dira, ez gaudelako lan asko egiteko moduan. Zaila zaigu beraz honi eustea".

Arazo hori, jakina, beste komunitate batzuetan ere badute, eta horregatik, elkari laguntzeko eta gastuak gutxitzeko, beste moja batzuekin elkartzea erabaki dute. Juliana Odriozola Oñatiko Bidaurretako komentura joango da, ahizpa han duelako; Mertxe Etxeberria, Durangora; Julia Da Rocha, gazteena, Elgoibarko etxe batean geldituko da izeba zaintzen; eta gainerakoak (Mari Cruz Erauskin, Nekane Fernandez, Mari Tere Agirre, Maria Gemma Goenaga, Maria Jesus Azpiazu, Mila Alava eta Encarni Lazkano) Oñatiko Santa Anako komentura joango dira. Gehienek 55 eta 65 urte artean pasatu dituzte Elgoibarren, eta esan beharrik ez dago, pena handiarekin utziko dutela herria. Kanpotik etorritako mojak dira azkenengo joango direnak.

## Kanpotik norbait etorritz gero, langileren bat adibidez, kanpaia jotzen zuten atekoek, gizon bat sartu zela abisatzeko barrukooi"

51 urte ditu gazteenak, eta nagusienak, 88, eta erreleboa falta dute, Euskal Herrian ez dirudielako moja berririk dagoenik. Bai, ordea, beste leku batzuetan. Burgosen (Espainia), esaterako, mugimendu berria sortzen ari dela esan dute, eta ari direla gazte batzuk inguratzen. "Gauza handia da hori. Gazteekin alaitasuna, edertasuna, gaztetasuna... egongo litzateke baina...".

### EZKUTUAN ETA MESFIDATI

Ogibide ezberdinak bete dituzte urte hauetan Elgoibarko mojek. Lehenengo, neskenzako ikastetxea sortu zuten, eta gerora, josteko pedal elektronikokoak katean egiten hasi ziren komentuan Sigmarentzat. Goratu enpresak emandako hainbat lan ere burutu zituzten. Hori guztiagatik herriko neskatilekin, haien gurasoekin eta lantegietako zenbait langilerekin hartueman handia izan dute mojek. Gurekin elkartu diren mojek komentutik irteteko aukera bazuten, eta beharbada, horixe izan da Santa Klarako mojek eza gutu duten aldaketa handiena. Garai batean, ez zutelako komentutik kanpoko jendearekin harremanetarako aukerarik ere. "Lehen, oso jende gutxi sartzen zen komentura. Etxe barruan egoten ginen gu, eta harreran, barroteen atzean, bi moja. Kanpotik norbait etorritz gero, langileren bat adibidez, kanpaia jotzen zuten atekoek, gizon bat sartu zela abisatzeko barrukooi. Sendagilea etortzen zenean ere, zapiarekin estaltzen genuen burua. Inork ez ikusteko, korrika alde egindakoak ere bagara, eta halakoetan, jakina, oso barrengarri gelditzen ginen", gogoratu dute barrez. Orain laguntzera edo konponketak egitera joaten zaizkien askok etxeari buruz haiek beste dakitela esan digute, eta bakarrik ibiltzen direla hara-hona komentuan.

Janzkeran ere izan dira aldaketak. Lehen, toka itxiagoa eta babero handia erabiltzen zituzten. Orain, komentu barruan bata jantzita ibiltzen dira, lasaiago, baina bada kaleko jantzita ibiltzen denik ere. "Santa Klarak esaten digu pobre eta umil jantzteko. Je-

sukristo, Jainkoaren semea, ere hala ibiltzen zen, eta guk haren antzera jokatuz behar dugula esaten ditu Santa Klarak. Baina ez penitentzia modura. Berorako nahiz hotzerako egoki jantzita ibiltzen gara, baina gure janzkerak xumea izan behar du beti".

Bizitza-sakratua ulertzeko moduak ere oso ezberdinak dira orain, mojen esanetan; baita elkarte bizitza ulertzeko modua ere. Mojek "su caridad" esaten zioten lehen elkarrizketan eta abadesari "su reverencia"; amaitu ziren kontu horiek, baina. Orain, euren izenez deitzen diote elkarrizketari. Zorrotza eta zurruna zen komentuko mojen garai bateko bizimodua. Etxeko norbait bisitan etortzen zitzairenean, aldamenean laguna hartuta joan behar izaten zuten bisitarara, eta kanpotik bidaltzen zizkieten eskutitzak nahiz beraien idatzitakoak ere, abadesak irakurri behar izaten zituen lehendabizi. "Pentsatzen jarritz gero, Ebanjelioaren kontrako gauzak dira horiek. Egiten genituen gauzak mesfidantzaren adierazle ziren. Norbere ama bisitan etorri eta solasaldi hartan beste moja bat aldamenean izatea ez zitzaigun inori gustatzen, eta aldamenean egon behar zuenarentzat ere ez zen eroso".

Gazteagoen etorrerak eta beharrak berak eraman zituen gauzak aldatzera. Sarrerako barroteen osteko eta koruko zapi beltzak kendu zituzten, adibidez. "Gizartea ere aldatu da, eta korrontearen kontra ideia bati eutsi nahi etsigarri horrek ez du merezi. Ebanjelioa bizi behar baldin badugu, ezinbestekoa da beste mojen konfiantza izatea; sinistu egin behar diogu elkarrizketari, eta gure arteko harremanek askoz goxoagoak izan behar dute. Gainera, zenbat eta gehiago hitz egin, hobeto. Lehen abadesak agindutakoa bete behar izaten zen derrigorrean; orain, zerbaitekin ados ez bagaude, lasai esaten dugu. Santa Klarak esaten digu elkarrenganako maitasunean saiatuz, sinestuz eta denon artean elkarte bat osatuz egin behar dugula aurrera. Berdintasunez jokatu behar dugu, inor ez delako beste bat baino gehiago".

## Klausuratik eskolara, eta etxe berrira gero

Santa Klarako erakunde erlijiosoa eraikitzeke lehen ideia Pedro Gonzalez de Jausororena izan zen. San Frantziskoren Hirugarren Ordeneko mojentzat komentu bat egiteko asmoa zegoen, eta bere ondasunak horretara bideratzea eskatu zuen testamentuan. Erromako lizentzia, Klemente VII. aita santuak eman zuen, 1525eko uztailaren 26an. Pedro Gonzalez de Jausoro hil ostean, haren emazte Maria Ramos de Sarasuak komentua klaratarrek osatzeko lizentzia jaso zuen Vatikanotik. 1531ko uztailaren 9an gauzatu zen hori, eta 1533 urteko irailaren 8an osatu zuten lehen komunitatea Oñatiko Bidaurreta monastegitik etorri ziren hiru mojek Elgoibarko beste hiru moje-

kin (Maria Gracia Sarasua, Maria Ibañez de Karkizano eta Domenja Larreategi). Beraz, 485 urte pasatu dituzte klaratarrek Elgoibarren, auzoari izena eman dion komentuan.

Klaratarrek, baina, bi aldiz ihes egin behar izan zuten komentutik gerra zela-eta: 1794an eta 1937an.

1957an, neskenzako eskola ireki zuten, eta 1973ra arte egon zen zabalik.

1976ko abenduaren 18an komentu berria estreinatu zuten. Gaur egungoa, aurrekoaren ondoan kokatutako eraikuntza modernoa, gaur arte beraien etxe eta lantoki izan dena.

Otoitzak euskaraz egin ahal izatea ere mesede handia da beren esanetan eta proiektoreek ere asko laguntzen dute kanturako eta errezurako. "Jainkoaren hitza euskaraz hartzeak laguntzen digu ulertzen eta gozatzen. Jainkoarekin dugun harreman pertsonalean ere euskarak gertutasuna ematen digu".

## OROITZAPENAK

Santa Klararen esanak gogoan hartzen dituzte, baina komentua hus-

tean agertu zaizkien makina bat gauza oroitzapenen kutxan gordeko dituzte. Besteak beste, eskola garaiako 40 bat kartillekin betetako kaxa bat aurkitu dute, eta badaezpada parrokiari laga dituzte, norbaitek haien falta igarri balu ere. Argazkiak ere badaude, batez ere lehen urteetakoak eta album hori Oñatira eramango dute. Hariz egindako ohe gaineko estalkiak ere aurkitu dituzte. Horietako batek 1767. urtea zuen idatzia eta arranoaren irudia. Beste batek, Francisca Ansola dauka idatzia. "Erabilitakoak dira, eta josi zituenak ordu dezente emango zituen josten. Garai hartan ez dakit mojek kanporako lanik egiten ote zuten, baina bistan da, eskulanetarako gaitasun handia zutela".

Gauza batzuk eurek gordeko dituzte, oroitzapen handiak dakarzielako, baina komentuan pilatutako beste gauza asko eman egingo dituzte, jaso ere asko jaso dutela arrazoituta. Liburuak, partiturak eta Santa Klararen irudia San Bartolome parrokiari eramango dituzte; Jesukristo, Maalara eta Amabirjina, Loiolara. San Frantziskoren gurutzbidea koadroa, berriz, Zinbabwera bidaliko dute, klaratarrak han egiten ari diren eliza apaintzeko. Zenbait ohe behartsuentzat izango dira, eta maindire eta mantak Caritasi emango dizkiote. Eserleku luzeak, berriz, Aiasia, Sallobente-Er-

*Begoña Mugertza hizketan martxoaren 24an parrokiari mojei egin zieten omenaldian*



*San Bartolome parrokia bete egin zen mojei egin zieten omenaldian.*

muaran eta Arriagako elizetarako gordeko dituzte. Komentuak, biltoki handia ez ezik bilgune handia ere izan da, baina urteotan. Harrera etxe handi bat. Erabili izan dute alkoholikoen bileretarako, otoitz lantegietarako, eukaristia errezuetarako, eskola partikularretarako, apaizak elkartzeko, gazteen konbibentzietarako...

"Eman dugu, baina jaso ere asko jaso dugu". Elgoibarren egindako festa edo ekitaldietan sobratutako jatekoak, esaterako, Santa Klarara eraman izan dute sarri elgoibartarrek. Komentuko mojentzako baino gehiago izaten zen, baina, askotan jateko hori, eta beste guztia txukun prestatu eta beharrean zuden lagunei eman izan diete mojek. Esker on hitzak izan dituzte elgoibartarrentzako. "Elgoibarrek bizitza eman digu eta bizitzen lagundu digu. Gustura bizi izan gara, pozik, eta maitatuak sentitu gara". Komentua Udalarari saldu diote, "herriak behar dituen zerbitzuetarako", baina esan dute oraindik ez dagoela zehaztuta zertarako erabiliko den aurrerantzean. "Komentua herriarentzat izango da, eta hori zaindu behar duzue. Herriaren zerbitzurako bada, hori ere gure karisman sartzen den gauza bat da".

Mojei agur esan eta eskerrak emateko, elizkizun berezia egin zuten martxoaren 24an parrokiako ordezkariak eta Udalaren antolatuta, eta San Bartolome parrokiari bete egin zen ekitaldirako. Udalaren izenean, alkateak opariak eman zizkien eta esker on hitzak ere izan zituen haientzat. Begoña Mugertzak hitz egin zuen gero parrokiaren izenean: "Eskerrik asko gure pozaldi eta nekealdietan gurekin egoteagatik, zuen etxea denontzat zabalik izateagatik eta kristau elkartari eman diozuen laguntza eta babesarengatik". Mugertzak esan zuen mojak presente egongo direla beti Elgoibarko eliztarren otoitzetan.

## Aurtengo San Bartolome jaietako egitaraua osatzeko elgoibartarren 150 ekarpen jaso ditu Udalak

**E**lgoibarko Udalak hainbat bide jarri ditu herritarren eskura San Bartolome jaietarako proposamenak jasotzeko: telefonoa, whatsapp, partaidetza prozesuetarako e-posta, online galdetegia eta deskargatzeko galdetegia, arreta bulegoan ere jaso zitekeena. Horrez gain, lau tailer antolatuta dituzte gizatalde jakinen proposamen eta balorazioak jasotzeko: umeekin ludotekan bildu dira; nerabeekin, gaztelekuan; 60 urtez gorakoekin, Jubilatuen Etxean eta 16 eta 25 urte bitartekoekin, Kultur Etxean. Guztira, 85 pertsonen hartu dute parte prozesu partehartzailerik horretan eta bilera horietan jaso dira proposamenak batez ere; gainerako bideetatik beste 12 ekarpen jaso dituzte.

Partehartzailerik jaiak buruz egindako balorazioa positiboa izan da. Jendea "gustura" dago sanbartolomeekin. Betiko eta ohiko jaiak direla esan dute, eta ohitura, erlijio eta elgoibartarren identitatearekin lotuta daudela. Jaietako hitzordurik garrantzitsuenak Mautitza txarangaren kalejira eta sokamuturra direla ere gaineratu dute partehartzailerik. Egin dituzten eskaeren artean, berriz honako hauek daude: ikuskizun piroteknikoak jartzea, kontzertu eta ikuskizun eszeniko gehiago antolatzea eta jaietako irudi izango den pertsonaiaren bat sortzea. Umeei eta nerabeek jolas jarduerekin, lehiaketekin, kontzertuekin eta kirolarekin lotutako ekarpenak egin dituzte nagusiki; helduagoek, ordea, musikarekin eta gastronomiarekin zerikusia dutenak.



Udala ere hasia dago aurtengo jaiak prestatzen eta jasotako ekarpenak baliagarriak izango zaizkiela esan du Ane Beitia alkateak. Andrea Arriola Kultura zinegotziak esan du herritarrek beti izan dutela Kultura Sailaren bitartez ekarpenak egiteko aukera, baina aurtengo egitarauan ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi izan dutela, herritarren eskakizunak entzun eta denen gustuko jaiak osatzeko". Pozik agertu da, bestalde, parte-hartze tailer hauek izan duten erantzunarekin.



### 'Ergela' antzezlan eskainiko dute Joseba Apaolaza eta Sara Cozar aktoreek apirilaren 13an Herriko Antzokian

Joseba Apaolaza eta Sara Cozar aktoreek *Ergela* antzezlan taularatuko dute apirilaren 13an Elgoibarren (Herriko Antzokian, 20:30ean). Sarrerek salgai egongo dira aurrez Kutxabanken, eta bihar, zapatua, 19:15etik 21:45era leihatilan. Egunean bertan ere erosi ahal izango dira, baina, leihatilan. 10 euro balio dute sarrerek (Gazte txartela dutenezat, 7 euro).

Antzezlan komikoak Joseba Apaolaza izango du protagonista. Ordaindutako frogatik psikologiko batzuetara aurkeztuko da diru pixka bat irabazteko. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazteko joango da frogara, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Psikologo misterioaren papera egingo duen Sara Cozar aktoreak tranpan erortzeko galdera sorta egingo dio gizon ergela urduritasunak jota utzi arte. Familiaren bitartez ere presionatu edo behartu egingo dute muturreko egoera batera eraman arte. Halaber, bere onena eman beharko du zorritzarreko amaierarik gerta ez dadin.

Komediatik abiatu arren, istorioan aurrera egin ahala beste sakontasun bat hartuko du obrak, hausnarketari bidea emanez. Izan ere, hipotesi batean erakitako fikzio bat den arren, ez dago batere urrutirik gizartea hartzen ari den norabidetik.

## Hilaren 14an jokatuko dute Kilimon Trail, eta aurten, bi proba izango dituzte aukeran



Maite Maiora, besoak jasota, iaz, helmugaratu zen unean.

**A**pirilaren 14an jokatuko dute aurten Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketa; estraineko aldiz, zapatu arratsalde batean, orain arteko zazpirak dome ketan jokatu direlako. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen du lasterketa, Lizarpe Mendi Klubaren babesean, eta aurten, berrikuntza nagusi bat izango du. Izan ere, lehenengo aldiz, antolatzaileek zailtasun ezberdineko bi ibilbide prestatu dituzte: motza, 11 kilometro eta 600 metroko desnibel positiboduna, eta luzea, ohikoa, 23 kilometro eta 1.650 metroko desnibel positiboduna. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko, eta interesatuek [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean eman behar dute izena, bai proba luzerako eta bai motzerako [Ibilbidearen trazatua ikusi nahi duenak ere bertan du aukera]. Aurten, gainera, Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartzeko dortsal bat ere zozkatuko dute Kilimon Trailen, Elgoibarko Laserlan enpresak emandakoa. Lasterketa 16:00etan abiatuko da.

Urtetik urtera sona handia hartu duen lasterketa da Kilimon Trail eta aurten zortzi-garrenez jokatu da. Maite Maiora (Mendaro, 1982) eta Julen Larruzea (Larrabetzu, 1982) gailendu ziren iazko edizioan, eta haienak dira denbora onenak ere. Larruzek 1:56:26ko denbora egin zuen iaz, eta minutu batean ondu zuen aurreko urtean Walter Becerrak ezarri zuen denbora. Maiorak, berriz, 2:16:45ko denbora behar izan zuen iaz proba amaitzeko. Bat ez beste Kilimon Trail guztiak jokatu ditu Maite Maiorak, eta jokaturakoa guztiak, seirak, irabazi ditu. Iaz, gainera, sekulakoa egin zuen, ordura arte Virginia Perezek zuen errekorra hogeit hamar minutuan onduta. Omenaldia ere egin zioten antolatzaileek iaz, eta aurten, esker onez, lasterketa iragartzeko kartelera eramanez dute bere argazkia.

### Apirilaren 22an izango da Jose Gurrutxaga haur krosa

Apirilaren 22an izango da aurten Elgoibar Ikastolak urtero antolatzen duen Jose Gurrutxaga haur krosa. Ohi legez, Elgoibar eta Mendaroko ikastetxeetako haurrek parte hartuko dute, eta dagoeneko 784 umek eman dute izena. Adinka banatuta ariko dira korrika, eta aurrenekoak 10:30ean abiatuko dira korrika.

### Elgoibar eta inguruetako natura eta mendiko ondarea ezagutzeko irteerak

Elkartearen 75. urtemuga ospatzeko ekitaldien barruan, Elgoibar eta inguruetako natura eta mendiko ondarea ezagutzeko bederatzi irteera antolatu ditu Morkaiko Mendizale Elkarteak, Elgoibarko Udalaren eta Arantzadi zientzia elkartearen laguntzarekin. Apirilaren 13an egingo dute aurrenekoa, gauzez. Anfibioak ezagutzeko irteera izango da, eta Ander Izagirre elgoibartarraren gidaritzapean ibiliko dira izena ematen dutenak.

Anfibioen ugalketa garaia da, eta garai horretan aktibitate handiena gauzez izaten denez, irteera bera ere gauzez egingo dute. Ander Izagirrek urte asko daramatza Euskal Herriko anfibio zein narrastiei buruzko ikerketak egiten, eta irteera honetan inguruan daukagun aberastasun herpetologikoa baloratzen erakutsiko du, baita hemen bertako espezie ezberdinak bereizten ere. Irteera honetarako buruko argia edo linterna eramanez behar da, eta baita nork bere afaria ere. IMHko aparkalekutik abiatuko dira, 20:00etan, eta izena emateko bi modu daude: [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus) e-postara idatzita edota 636 994 798 telefono zenbakira deituta.

#### Beste zortzi irteera

Ziklo honen barruan, beste zortzi irteera ere izango dira, baina. Narrastiak, izarrak, espeleologia, burdin aroko ondarea, saguzarrak, mikologia eta genealogiari lotutako irteerak ere izango dira, eta bakoitzerako gidari edo arduradun bat lotu dute. Besteak beste, honako hauek arituko dira gidari lanetan: Inma Mugertza, Ignacio Mugertza, Antton Alberdi, Jokin Martinez, Asier Sarasua eta Iñaki Etxaniz.

## Euskal Herriko Itzulia Elgoibartik pasatuko da gaur eta bihar, eta Eibarko Valentziara Oroitarreko tropela hiru aldiz igaroko da domekan guretik

**T**xirrindularitza zaleak zorteko dira. Izan ere, gaurtik domekara bitartean, Euskal Herriko Itzuliaz, Valentziara Oroitarreaz eta Lagun Taldeak antolatutako Elgoibar Hiria Saria lasterketaz gozatzeko aukera izango baitute Elgoibartik mugitu ere egin gabe. Hori bai, lasterketok trafikoan eragina izango dute, bistakoa denez, eta pazientziaz hartzeko eskatu dute Udaltzaingotik.

Itzulia gaur eta bihar igaroko da Elgoibartik. Gasteizen abiatuko da gaurko etapa, Itzuliko bosgarrena, eta 164,7 kilometroko bidea eginda, Eibarren amaituko da. Elgoibarrera Azkaratek jaitziko dira txirrindulariak, Eibarrera joateko, eta aurrenekoak 17:05ak aldera igaroko dira hemendik, denborarik onenean. Bihar, berriz, Eibarren hasi eta Arraten amaituko da etapa, 122,2 kilometro eginda. Urkaregi gainera 16:56ak aldera igaroko dira, eta Elgoibartik, 17:03ak aldera pasatuko dira.

Valentziara Oroitarrea 9:00etan abiatuko da domekan Eibartik, eta lehenengoz, 9:07ak aldera igaroko da tropela Elgoibartik Debarantz. Itziar, Zumaia, Zarautz, Meaga, Aizarnazabal, Zestoa, Azpeitia eta Azkoitia pasatuta, 10:57ak aldera iritsiko dira Azkarateko gainera. Elgoibartik 11:09ak aldera pasatuko dira bigarrenengoz, Bergarara bidean. Handik, Elgetara abiatuko dira Uberatik gora, eta Eibar atzean laga, Ixua igo eta Etxeberrira jaitzi ostean, Aiastia gainera igoko dira txirrindulariak. Ondo bi-



dean, 12:52ak alderako iritsiko dira Aiastia gainera, eta Elgoibartik 13:05ean pasatuko dira berriro.

### Elgoibar Hiria Saria, domekan

Elgoibarko Lagun Taldeak Elgoibarko Hiria Saria txirrindularitza lasterketa antolatu du iganderako. 16:00etan abiatuko dira txirrindulariak Kalegoen plazatik, eta 86 kilometroko ibilbidea eginda, Mintxetan bukatuko dute lasterketa, 18:20ak.

## Pilar Arriolak irabazi du Izabako Hiru baselizen gau-krosa

Martxoaren 31n, larunbatez, jokatu zuten Izabako Hiru baselizen gau-krosa eta Pilar Arriola korrikalari elgoibartarra nagusitzen emakumezkoetan. Hirugarren urtez antolatu dute lasterketa hau, eta iaizo edizioan, bigarren egin zuen Arriolak. Pilar Arriolaz gain, beste lau elgoibartar ere lehiatu ziren Hiru baselizen lasterketan: Iker Izagirre, Aitor Kortazar, Miren Serrano eta Ibon Serrano, eta txukun aritu ziren guztiak ere. Sei kilometroko ibilbidea osatu behar izaten zuten lasterkariek.

## Tecnifuelle eskubaloi taldea Euskadiko txapelkun izan da, eta Deca, hirugarren



Aste Santuko oporraldiaren aurreko asteburuan jokatu zituzten jubenilen mailako Euskadiko Txapelketako lauko finalak Sanloko bi taldek: Tecnifuellek eta Decak, eta sasoiko daudela erakutsi zuten biek ala biek. Zarautzen jokatu zuten Lauko finala Tecnifuelle Elgoibar taldeko neskek, eta jokaturako hiru partidak irabazi zituzten: Deca Elgoibar jubenil mutilen taldeak, berriz, Urdulizen jokatu zuten Lauko Finala, eta hirugarren sailkatu ziren. Bi taldeok Espainiako Eskubaloitza Txapelketa jokatzeko sailkatu dira beraz.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 603 694 244

Atariak eta etxeak garbitzen eta adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 631 790 555

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz, orduka eta baita barnelangile ere. ☎ 631 414 947

Umeak zaintzeko eta etxe, elkarte edo tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo lan jardun osoan. ☎ 675 965 130

Umeak eta nagusiak zaintzeko zein eskualde laguntzaile aritzeko prest. Orduka. ☎ 602 047 812

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxeko langile moduan jarduteko prest. ☎ 688 829 738

Umeak zaintzeko eta etxe, elkarte zein tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo lan jardun osoan. ☎ 605 598 999

Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edota baserriko lanetan aritzeko prest. ☎ 631 272 116

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat. ☎ 699 535 728

Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen jarduteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 663 470 706

Adinekoak zaintzen edo baserriko lanetan aritzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz bestela. Berehala lanean hasteko moduan naiz. ☎ 674 579 736 / 688 735 551

Adinekoak zaintzeko lanetan aritzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz orduka. ☎ 626 292 587

Adinekoak zaintzeko lanetan aritzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz orduka. ☎ 681 013 032

Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz orduka. ☎ 691 891 709

Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz orduka. ☎ 632 748 877

Garbiketean edo zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientzia handia daukat enpresetako harrera lanetan. ☎ 682 319 739

Edozein lanetan aritzeko prest nago. Aurrez esperientzia daukat fruta-dendan lanean. ☎ 631 394 345

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Titulua daukat. ☎ 636 517 025

Lan bila nabil. Garbiketa lanetan eta kontserbagintzan esperientzia daukat. ☎ 642 847 091

Lan bila nabil. Garbiketa lanetan eta enpresetako harreraren esperientzia daukat. ☎ 631 222 440

Sukalde laguntzaile eta etxez etxeko laguntzaile bezela lan egiteko prest. ☎ 666 008 974

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 620 467 274

Garbiketean edo adineko pertsonen zaintzan lan egiteko prest. Orduka edo etxeko langile modura. ☎ 637 966 749

Adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 632 729 261

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Bederatzi urtez egon naiz adineko bat zaintzen. Elisabet. ☎ 621 376 202

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka edo etxeko langile modura. Erreferentziak daukat. ☎ 632 504 190

Pertsona arduratsua lan bila adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 632 877 170

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburetan ere bai. Esperientzia daukat. ☎ 631 406 177

Pintore lan bila. Esperientzia daukat eta astelehenetik igandera libre. ☎ 691 441 727

Adinekoak eta umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 631 620 344

**ETXEBIZITZAK.....**  
Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 529 560

**GARAJEAK.....**  
Marradun garajea salgai Leku Ederren. ☎ 615 707 857

**OSPAKIZUNAK.....**  
1943an jaio eta aurten 75 urte betetzen dituzten elgoibartarrek edo Elgoibarren bizi direnek, bazkaria egingo dute apirilaren 28an Sigma jate-txean. Interesdunek 50 euro sartu beharko dituzte apirilaren 24a baino lehen Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: ES72 3035 0007 2900 711 35212. 12:30ean ospakizun erlijiosoa egingo dugu San Bartolome parrokian, gero argazkia aterako dugu eta 13:00etan luncha egingo dugu. 14:30ean bazkaria Sigma jate-txean izango da.

1968an jaio eta aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek edo Elgoibarren bizi direnek, ospakizuna egingo dute maiatzaren 5ean Sigma jate-txean. Interesdunek 68 euro (luncha, bazkaria, gaueko mokadutxo eta argazkia) sartu beharko dituzte apirilaren 15a baino lehen kontu zenbaki honetan: ES87 3035 0007 22 0071134606. Kontakturako: 50kintada1968elgoibar@gmail.com edo facebook/elgoibarkintada.



**administradores**  
Consejo Asesor de Colegios de Administradores de Empresas  
Instituto Politécnico de Administradores de Empresas

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Jakin nahi nuke ea beharrezkoa den jabeen komunitatekoen baimena merkatariek lokaletako kartelak fatxadetan ipintzeko.**

Auzitegi Gorenaren azken jurisprudentzia nahiko malgu eta permissiboa da fatxadetan horrelako kartel eta elementuak jartzeari dagokionez eta ez du beharrezkotzat jotzen aurrez bizilagunen batzordeak adostea. Jurisprudentziak lokal horiek egokitzeko eskatzen dituen aldaketek, eraikinaren elementu komunei eraginda ere, onartu egin behar dituzte. Beti ere kontuan hartu behar da aldaketa horiek ahalik eta eragozpen, traba edo kalterik gutxien eragingo dutela.

Ezin ditugu maila berean jarri merkataritza lokalak eta etxebizitzak. Lokalak, gehienetan, beheko solairuetan egoten dira eta etxebizitzak hauen gainean. Fatxada eraikin osoaren kanpoko alde bada ere, etxebizitzaren alderdi arkitektonikoa zorrotzagoa da eta edozein aldaketak osotasunaren harmonia hautsi dezake. Beheko solairuetan, ordea, malgutasuna handiagoa da; bai hasierako eraikuntzan zein amaieran, baita edozein itxura aldaketan, kanpoan izanik ere. Lokal horiek zertarako erabiliko diren ere kontuan hartzen da, beti ere jabeek zein gero bere egiten dutenek aldatu dezaketela jakinda.

**Aholkua: Kartel eta errotuluak ipintzeko Udal-arauak hartu behar dira kontuan, baina berez komunitateak ezin dio ezezkorik eman kartelak jartzeko baimenari.**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar





## ZORIONAK

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasa gaurko eguna. Familia osoaren partetik.



Bikiak, bikainak, bihurriak, bihotz onekoak. Bi muxu eta bi besarkada. Zorionak, bikote!



Zorionak, **Danel!** Gaur 5 urte. Muxu portolo bat Peio, aitaxo eta amatxoren partetik!



Zorionak, **Amaia, Ane** eta **Miren**. Patxuk familia-koen partetik.



Zorionak, **Oier**, martxoaren 31n 7 urte bete zenuelako. Muxu bat, Unaxen eta Izeiaren partetik.



Zorionak, **Alaine!** Bihar 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat guztioren partetik.

Maiatzaren 25ean  
**BARREN-zaleen jai**a ospatuko dugu Dagoeneko prestaketa lanetan hasi gara, baina zuokin batera egin nahi dugu.  
**BARREN denona delakol**  
**BARREN denok garelako!**




Antolakuntza-lanetan parte hartzeko, eman izena:  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) edo 943 744 112

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



**EGUZKITAKO BETAURREKOETAN AUKERA ZABALA.**  
**19€** gehiagogatik **GRADUATU ITZAZU!**

\* Kontsultatu baldintzak

25. urteurrenaren harira, 'Barren beti gainean' argazki lehiaketa antolatu du BARRENEK.




**BARREN beti gainean**

**LEHIAKETA!**

**Klik! Klik! Klik!**

**Apirilaren 13ra arteko epea** daukazue **BARREN** zenbaki batekin argazkia ateratzeko.

Parte hartzen duzuen guztioren artean **Errigorak emandako bi** otar zozketatuko ditugu, eta apirilaren 20ko zenbakian emango dugu irabazleen berri.



Argazkiak bidali honako helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus). Argazki guztiak [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean zintziakatuko ditugu.

## 10 MARTITZENA

**18:00** Literatura tailerra. *Viaje con clara por Alemania*. Fernando Aranburu eta Consuelo Carrere. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

**19:00** Mahai-ingurua: *Gatazkaren ondorioak emakumeengan. Emakumeak bakearen eraikuntzan*. Hizlariak: Bertha Gaztelumendi eta Maria Gonzalez Goro-sarri. Antolatzailea: Elgoibarko Udala. Musika eskolako auditoriumean.

## 13 BARIXAKUA

**18:00** Erakusketa: Egur arte tailerreko umeen artelanak: margoak, marrazkiak eta zeramikak. Astelehenetik barixakura, 18:00etatik 20:00etara, eta larunbate-tan, 12:00etatik 14:00etara. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Apirilaren 21era arte. Antolatzailea: Egur.

**18:30-20:30** Odol ateratzea. Elgoibarko Odol-Emileen Elkartearen (Anbula-tegi ondoan).

**17:00-20:00** Futbol Eskolaren Eguna. Kalegoen plazan eta Leku Ederren. Antolatzailea: C.D. Elgoibar.

**17:30** Kiribil. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

**20:00** Anfibioak ezagutzeko gaueko ir-teera. Gidaria: Ander Izagirre Egaña. Izena emateko: *morkaiko@morkaiko.eus* edo 636 994 798. Elkartzeko lekua: IMHko aparkalekua.

**20:30** Antzerkia: *Ergela* (Euskaraz). Txalo produkzioak. Herriko Antzokian. Sarreren salmenta: Kutxabanken, zapatuan leihatilan 19:15etik 21:45era, eta egu-nean bertan, leihatilan.

## Zinea (Herriko antzokian)

### 'La forma del agua'

6 barixakua, 21:30  
7 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)  
8 domeka: 19:00  
9 astelehena: 21:30

### 'Salvando al reino de Oz'

8 domeka, 16:30

### 'El tercer asesinato' (Ongarri zinekluba)

12 eguena, 21:30

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

6 BARIXAKUA	7 ZAPATUA	8 DOMEKA	9 ASTELEHENA	10 MARTITZENA	11 EGUAZTENA	12 EGUENA	13 BARIXAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guzian, gabez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410



### IV. URTEURRENA

## Rosario Zulaika Osa

2014ko apirilaren 3an hil zen.

Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilaren 7an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren elizan. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



# Otzak erretegia

ANDRES DORTA  
INGRID ZAMBRANO



El Gautxo tabernan pizzak dira Andres Dortaren plater nagusiak. Orain, ordea, Elgoibarren izango da sukaldari argentinarraren beste berezitasun bat probatzeko aukera: parrilada. Izan ere, Otzak jatetxean erretegia zabaldu du.

## o Parrilako sukaldari

o Errosario kalean El Gautxo pizzeria izanda, San Roken Otzak erretegia ireki duzu. Nolatan bururatu zaizu jatetxe berri batekin hastea?

Nik beti nahi izan dut parriladun jatetxe bat izatea. Argentinan, gurasoek, erretegia izan dute eta 100 lagunentzako parriladak prestatzen zituzten. Beraz, umetatik jaso dudan lanbidea da parrilako sukaldariarena eta 18 urte nituenetik honetan dihardut. Donostiako jatetxean ere izan nuen parrila, baina Errosario kalean ez dut nahikoa azpiegiturarik parrila jartzeko. Otzaken aukera eskaini zidaten, eta aurrera. Orain, El Gautxon pizzak eta plater konbinatuak eskainiko ditugu, eta Otzaken, bestelako jatekoak.

o Zein izango dira Otzakeko berezitasunak?

Parrilan erretako haragi, arrain eta barazkiak; batez ere haragi mota ezberdinak, nik haragia arraina baino gustukoago dut-eta. Txuleta, txerri-saiheskia, azpizuna, entrekota... hori gutzia hainbat salsa berezirekin lagunduta: barbakoa, Argentinako tximitxurria... Entsaladak eta plater konbinatuak ere izango dira.

o Inaugurazioa izan zenuten martitzenean. Jendeari gustatu al zitzaizkion zure jateko berriak?

Jende asko etorri zen eta gustuko izan zutela uste dut. Txerri-saiheskia, txorizo kreolea, entrekula -oso haragi fin eta samurra, solomo eta txorizo iberikoa eta tortillak atera nituen, eta dena jan zuten. Ea probatu ondoren aurrerantzean ere etortzen diren.

o Eguneko menurik izango al da erretegia?

Oraingoz ez, baina karta zabala daukagu eta prezioz ondo dago. Esaterako, bi lagunentzako parrilada, ondo asetzeko modukoa 40 euroan jan daiteke eta bi enpanada ere izango ditu. Jendeak ikusten duenean eskatuko duen horietakoa izango dela uste dut. Batentzako parriladak ere ipiniko ditugu.

o Jangela ere ipini duzue Otzaken, ezta?

Bai. Biltegi handia zuen, erabiltzen ez zena eta erditik zaituta, 20 lagunentzako jangela jarri dut. Tabernan ere jan ahal izango da, eta udan, baita terrazan ere.

*“Haragi parriladak izango dira Otzak jatetxeko nire berezitasuna, baina arrain eta barazkienak ere ipiniko ditugu”*

o KARTA

o PLATER KONBINATUAK

o ENTSALADAK

o OGITARTEKOAK

o RAZIOAK

**PARRILAKO MENUA**  
(HARAGI PARRILADA ETA  
BARAZKI PARRILADA)

943 598 405 San roke kalea, 28, Elgoibar



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Fax: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolín, 13 - Tel.: 943 740 279  
tailler@pagoagasa.com

**ELGOIBAR**

**Fontanería Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheka B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA



Azpilgoeta 7 beheka - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzateffabide@hotmail.com

**SANTANA**  
Igor Santana

**ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.**

Urazandi kalea 17, beheka  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

## AROSZTEGIAK

**ASIMA**  
Aroztegia Carpintería

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547

**BIENA S.L.**  
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@bicna.eus



**IMAR**  
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheka  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriaimar@hotmail.com



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranza@gmail.com

Tel.: 943 741 260  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Urruzuno, 14 beheka  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**iparelek s.l.**  
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 356

iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com

## LEIHOAK

**LODOSO**  
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA

**A. Garate**  
Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 beheka - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com